

# 2020KO URTEKO TXOSTENA

tecnalia

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

03 **LEHENDAKARI**AREN GUTUNA

05 **ZUZENDARI NAGUSI**AREN GUTUNA

07 AURKEZPENA

09 **GOBERNU-** ORGANOAK

13 INFORMAZIO **EKONOMIKOA**

15 JARDUERAREN **INPAKTUA**

22 ESPEZIALIZAZIO **TEKNOLOGIKOA**

24 JARDUERA- **EREMUAK**

28 **2020KO GERTAERA ESANGURATSU** BATZUK

34 PRESENTZIA **GLOBALA**

35 **EGOITZEN** KOKAPENA

# **LEHENDAKARI**AREN GUTUNA



**Alex Belaustegui**
TECNALIAko lehendakaria

*«Lantaldeak bikain erantzun du,
ezin ardura gehiagoz, pertsonen bizi-kalitatea
hobetzea lortzeko eta gehien behar izan
dutenenean enpresei bereizten laguntzeko»*

Mundua aldatu egin da. Irentsi gaituen eta, zorionez, bukaerara hurbiltzen hasi den pandemia honen ondorioz, teknologiak eta berrikuntzak inoiz baino zeregin garrantzitsuagoa dute gure gizartearentzat. Zentro teknologikoak oso garrantzitsuak izan gara egoerak behar izan dituen askotariko irtenbideak garatzeko orduan, eta erabat ziur esan dezaket soluzioaren protagonista eta parte izan dela TECNALIA. Enpresek irauten, egokitzen eta lehiakorrak izaten lagunduko dieten tresnak behar dituzte. Pertsonek bizi-kalitatea behar dute, eta, batez ere, mundu hobe bat eraiki daitekeela itxaro. TECNALIAn irtenbide horiek **ikertzen eta sortzen** ditugu egunez egun, eta hori da pandemia hasi zenetik atsedenik gabe egiten jardun garena.

Ezin naiz harroago sentitu hilabete hauetan ikusi dudanaz: profesional bikainak, konprometituak eta, garrantzitsuena, **giza kalitate izugarrikoak.** Gure historiako urterik zailena pasatu dugu, guretzat eta gure ingurune guztiarentzat. Lantaldeak bikain erantzun du, ezin ardura gehiagoz, **pertsonen bizi-kalitatea hobetzea lortzeko** eta gehien behar izan dutenenean enpresei bereizten laguntzeko.

TECNALIAko lehendakari izendatu nindutenetik urtea betetzetik hurbil dago, eta hurbiltzen ari da pandemiaren amaiera ere. Guretzat berria den aro bati ekin diogu, plan estrategiko berri bat abian jarrita. Berria da Europarentzat ere, zeinak beste ziklo bati ekin baitio, berrikuntzako esparru-programa berri batekin; eta orobat da berria, oro har, munduarentzat, zeinak bizi dugun agertoki berri honetan bizitzen eta eraikitzen ikasi behar baitu.

**Trantsiziorako eta itxaropenerako garaia.**

Arreta merezi duten aldaketa garrantzitsuak gertatu dira. Agur esan behar diogu Iñaki San Sebastiani, zeina zentroko zuzendari nagusia izan baita azken 5 urteetan eta ibilbide profesional guztia TECNALIAri lotuta egin baitu, duela 32 urtetik, Fatroniken hasi zenetik. Iñaki, zorterik onena opa dizugu zure ibilbide pertsonal eta profesional berrian. Ziur nago TECNALIAk izan dezakeen enbaxadorerik onena izango zarela zauden lekuan zaudela ere.

Eta ilusio eta itxaropen handiz hartu dugu zuzendari nagusi gisa Jesús Valero, orain arte teknologia-arloko zuzendariorde nagusi izana. 27 urteko ibilbide luzea du TECNALIAn, non bekadun hasi baitzen. Patronatuak erabateko konfiantza du Jesúsengan plan estrategiko berriaren gidari izan dadin eta TECNALIA erakunde are hobea bihur dezan, horrek aukera emango baitio gure herrialdeko eraldaketa teknologiko-industrialean funtsezko eragile izaten jarraitzeko. 2021a ere urte zaila izaten ari da, eta aurtengo kudeaketa-planak **2024ko plan estrategiko** berriaren atarikoa eta lorbidea baino ez du izan behar; plan estrategiko hori irailean aurkeztuko zaio Patronatuari, onar dezan.

TECNALIAk, aurreko plan estrategikoan enpresa-sarearentzat tresna baliagarria izateko lan egin ostean eta industriarekiko lankidetza nabarmen handitu ostean, hurrengo urratsa egin behar du. Inguruko agente guztientzako erreferentzia izan nahi dugu ikerketaren eta teknologiaren esparruan, eta merkaturako proiektu, irtenbide eta berrikuntzen eragile. Plan estrategiko berriak lehentasun hauek izango ditu: **bikaintasun teknologikoa lortzea, enpresetan I+G+Ba sustatzen duen eragilea izateko;** etorkizuneko erronken eta ingurunearekiko konpromisoari dagozkionen aurrean jasangarria den eredu bat sortzea; **talentu-eragile izatea;** eta **lankidetzaren eta aliantza estrategikoen alde egitea** berrikuntza-ekosistema aberastu eta produktibo bat sustatzeko.

**Europan dugun posizionamendua ere hobetuko dugu,** tokian-tokian inpaktua eragiten lagunduko diguten merkatu globaletan jarduteko. Europar Batasunak berrikuntza-arloko esparru-programa berri bat abian jartzeari ekin behar dio, eta, horrekin batera, Next Generation funtsen bidez merkatuak berreraikitzeko ahalegina egin behar du. Funts horiek Europa zaharraren berreskuratze teknologiko-industrialerako balio behar dute, baita denbora luzez iraun dezaketen balio erantsi handiko aplikazioak sortzeko ere. Hala, pandemiak eragin dituen kalte ekonomiko eta sozialak konpontzen lagunduko dute eta, era berean, teknologiaren eta industriaren esparruan lehiakorragoa den Europa bat berreraikitzen, etorkizuneko berme gisa.

Azken esparru-programaren emaitzek are ilusio handiagoarekin lanean jarraitzeko adorea ematen digute. **2020ko Horizon programako proiektuen kontratazioan, parte-hartzean eta lidergoan, estatuko lehenengo erakunde pribatua izatea lortu dugu.** Markak hautsi ditugu, 13. postua eskuratu baitugu ikerketa-erakundeen artean, lehenengo 50 erakundeetan alde handiz txikienak garen arren. Gure ahalmena izugarria da. Erabil dezagun.

Zalantzarik gabe, erronka handiak ditugu, haietako asko ezezagunak, baina ziur nago erronka horiei aurre egitea lortuko dugula. Harro nago talde handi honen parte izateaz.

# ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA



**Jesús Valero**
TECNALIAko zuzendari nagusia

*«Gure konpromisoaren ondorioz, urterik zailenetakoa izan den honek indartu egin gaitu maila guztietan, baita negozioan eta emaitzetan ere»*

Azken urte honetan bizi izan dugun ziurgabetasunak bide eman dio, pixkanaka, errealitate berri bati. Ezagutzen genuen mundu hura aldatu du COVIDak, eta aldatzen jarraitzen du oraindik ere. Hala ere, geroz eta prestatuago gaude etorkizunerako, baikor eta ilusio handiz.

Gure egitekoa, denbora honetan, **enpresekin lankidetzan aritzea eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea izan da, beste behin ere.** Proaktiboak izan gara gure ahalmen teknologikoak pandemiaren kontrako borrokan erabiltzean, baina oso argi izan dugu non jarri behar genuen arreta benetan efizienteak eta baliagarriak izateko: enpresei laguntzen beren beharretan eta erronketan. Aldaketak aukerak ekartzen ditu, eta inguruko enpresek eskari berriei erantzun behar izan diete. Aliatu teknologiko bat behar izan dute, hor egon gara gu, eta hortxe jarraituko dugu.

Errealitate berriak pentsatzeko eta erlazionatzeko modu berriak eskatzen ditu, eta hori da berritzea: gauzak desberdin egitea emaitza hobeak lortzeko. **Berritzaileak izan behar dugu errealitate berrira egokitzeko eta arrakasta izateko.** Eta helburu hori dute Europar Batasunetik berreskuratze-funtsen bidez abian jartzen ari diren berrikuntza- eta berreraikitze-apustu handiek. Funts horiei esker, Europan industria berri bat sortu ahal izango da, indartua, berritzaileagoa eta gizateriaren erronka handiekin lerrokatua, industria-sarea eta industria-sektore berritzaile berriak sortuko dituzten proiektu estrategikoen bidez. uropak eguneratu egin nahi du teknologiaren eta industriaren esparruan.

COVIDaren ondorioetako bat egokitzeko beharra izan da, eta, bereziki, azkar egokitzekoa. Hala bizi izan dugu **eraldaketa digitala;** prozesu hori hasia zegoen duela zenbait urtetik, eta, hilabete gutxian, beharrak errealitate bihurtu du. Horregatik, krisi honek erakutsi digu hemendik aurrera azkarrago egin behar direla eraldaketak. Zentro teknologiko bat garen aldetik, guri dagokigu **aldaketa horiei aurrea hartzen jarraitzeko eta aldaketok gure ingurunean arin sartzeko gai izatea.**

Aldaketak oso bizkor gertatzen ari dira, eta, abiadura horren ondorioz, indarrez sartu zaizkigu joera berriak, **adimen artifizialaren** eskutik, nagusiki, zeinak aukera ematen baitigu datu-bolumen handietan oinarrituta negozio-gakoak integratzeko. Ezin ditugu albora utzi etorkizun hurbilean funtsezkoak izango diren kontzeptu berriak. Adibidez, **konputazio kuantikoa**, zeina etorkizun handiko arlo bihurtzen ari baita lehen sektore batzuetan denboraren edo prozesatze-ahalmenaren ondorioz ebatzi ezin ziren arazoak ebazteko. Software kuantikoaren ingeniaritza diziplina berri gisa garatu behar da, nola maila akademikoan hala industrialean, eta erreferentzia izan behar dugu joera berri horretan eta etorriko diren beste askotan.

TECNALIA, berez, COVIDaz haragoko gizateriaren erronka handiei erantzuteko sortu zen; gaur egun beste **erronka batzuk ditugu, hala nola eraldaketa digitala, fabrikazio aurreratua, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, hiri-ekosistema eta osasuna.**

Konpromiso hori dela eta, urterik zailenetakoa izan den honek indartu egin gaitu maila guztietan, baita negozioan eta emaitzetan ere. Harro gaude euskal talde handi guztiekin eta Euskal Herriko ETE berritzaile guztiekin lan egiten dugulako, baina oraindik bidea geratzen zaigu egiteko, eta gure erronka da berrikuntza gure herrialdeko industria-sareko txoko guztietara eramatea.

Hori lortzeko talderik onena dugu; izan ere, etorkizuna pertsonen esku dago, eta harro gaude erakundeko profesional guzti-guztiek krisi honetan eman duten erantzun bikainaz eta erakutsi duten konpromisoaz. Haiengatik eraiki behar dugu TECNALIArik onena, profesional gisa hazteko eta garatzeko lekurik onena, eta zentroaz harro sentitzeko aukera eman behar diegu, gu haietaz harro sentitzen garen maila berean. Halaber, gai izan behar dugu profesionalen gogoko xede izateko; gai izan behar dugu **talentua Euskadira erakartzeko** eta bertan eusteko, gure **etorkizuna jasangarria** izaten lagunduko diguten proposamen berritzaile eta aberasgarrien bidez. Izan ere, TECNALIAn, pertsonek egiten duzue hori posible Etorkizuna zuen esku dago.

# AURKEZPENA

## TECNALIA

Ikerketa eta garapen teknologikoko erreferentziazko zentroa gara Europa osoan. Konprometituta gaude elkartzen gaituen **misioarekin –teknologia BPG bihurtzea–** eta besteengandik bereizten gaituen **ikuspegiarekin –industriaren eraldaketaren eragile izatea–.**

## GURE PERTSONAK

*Gure lantaldea, gure baliorik handiena.*

TECNALIAren baliorik handiena lantaldea da: 1.472 aditu teknologia BPG bihurtzeko ahaleginetan pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, enpresetan negozio-aukerak sortuz.

31 naziotako adituak, 20 egoitzatan banatuta, soluzio teknologiko integralak irudikatzen, identifikatzen eta garatzen, sormenez eta imajinazioz, **arreta pertsonalizatua eta diziplina anitzekoa** eskaintzeko gurekin lankidetzan jarduten duten enpresa guztiei.

**%44** Emakumezkoak

**%56** Gizonezkoak

**1.472** aditu

**267** doktore

**31** nazionalitate

**20** egoitza

## LANKIDETZAN ENPRESEKIN

*Konfiantza, lankidetza eta estrategia teknologikoa, enpresen lehiakortasuna bultzatzeko.*



Enpresei lagundu nahi diegu, I+G+Ban eta zerbitzu aurreratuetan dugun ahalmena eskainiz; hala, aintzat hartzen da gure **bikaintasun teknologikoa**, eta balioa ematen zaio antolatzeko dugun gaitasunari.

Enpresekiko erlazioa gero eta estrategikoagoa da, konfiantzan, lankidetzan eta estrategia teknologiko partekatuan oinarritua, haien **lehiakortasuna** sustatuko duen balio-ekarpen handiena lortzeko.

2011tik, 7.800 enpresarekin baino gehiagorekin aritu gara elkarlanean, eta haien % 75 ETEak ziren. Elkarlanean aritzen gara I+G+Bko jarduerak egiten dituzten euskal enpresen bi herenekin. Eta elkarlanean aritzen gara, orobat, IBEXeko 35 enpresetatik 25ekin.

**7.800** enpresa

**%75** ETEak

I+G+Ba egiten duten euskal enpresen
**bi heren**

IBEXeko
**35 enpresetatik 25**

# GOBERNU-ORGANOAK

**LEHENDAKARIA**
INGETEAM, S.A.
Alex Belaustegui

**LEHENDAKARIORDEA**
IBERMÁTICA, S.A.
Juan Ignacio Sanz

**IDAZKARIA**
KUTXABANK, S.A.
Fernando Irigoyen

## PATRONO BAZKIDEAK

### PATRONO BAZKIDEAK

ACLARA METERS, S.L.
**Pedro Urteaga**

AERNNOVA AEROSPACE, S.A.
**Francisco Javier Fernández de Retana**

ARTECHE CENTRO DE TECNOLOGÍA, A.I.E.
**Roberto Ortiz de Zarate**

CEMENTOS LEMONA, S.A.
**Elena Guede**

CEMENTOS REZOLA – HEIDELBERGCEMENT GROUP
**José María Echarri // Ángel María Gutiérrez**

CIE AUTOMOTIVE, S.A.
**José Esmorís**

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. (CAF)
**Imanol Iturrioz**

EPTISA CINSA INGENIERÍA Y CALIDAD, S.A.
**Jesús Gonzalo García**

EUSKALTEL, S.A.
**Xabier Iturbe**

FAGOR EDERLAN, S.COOP.
**Juan María Palencia**

FEDERACION ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE FUNDIDORES
**Marcial Alzaga**

GESTAMP AUTOMOCIÓN, S.A.
**María José Armendáriz**

GRUPO IGUALMEQUISA, S.A.
**Nicolás Guerra**

IBARMIA INNOVATEK, S.L.U.
**Koldo Arandia**

IBERDROLA, S.A.
**Izaskun Rica**

IBERMÁTICA, S.A.
**Juan Ignacio Sanz // Iñaki del Río**

INGETEAM, S.A.
**Alex Belaustegui**

IRIZAR
**Rafael Sterling**

KUTXABANK, S.A.
**Fernando Irigoyen**

PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A. (PETRONOR)
**Joaquim Coello**

SIEMENS GAMESA RENEWABLE ENERGY INNOVATION AND TECHNOLOGY, S.L.
**Jon Lezamiz**

VELATIA, S.L.
**Alejandro Ormazabal**

VICINAY CADENAS, S.A.
**Jesús Navas**

VIUDA DE SAINZ, S.A.
**Pedro Sainz**

ZIV APLICACIONES Y TECNOLOGÍA, S.L.
**Covadonga Coca**

## PATRONO INSTITUZIONALAK

EUSKO JAURLARITZA
**Estíbaliz Hernáez**
**Adolfo Morais**
**Marian Ibarrondo**
**Alberto Fernández**
**Zigor Urkiaga**
**Aitor Urzelai**

ADMINISTRACIÓN
GENERAL DEL ESTADO
**Raül Blanco**

ARABAKO FORU ALDUNDIA
**Javier Hernando**

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
**Joseba Mariezkurrena**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
**Jon Gurrutxaga**

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO –
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
**Inmaculada Arostegui**

## PATRONO OSOAK

BILBOKO UDALETXEA
**Iosu Madariaga**

DONOSTIAKO UDALETXEA
**Eneko Goia**

GASTEIZKO UDALETXEA
**Igor Salazar**

ADEGI
**José Miguel Ayerza**

CEBEK
**Carolina Pérez**

SEA – EMPRESARIOS ALAVESES
**Pascal Gómez**

## IZENDAPEN LIBREKO PATRONOAK

**Jon Azua**
**Carlos De Palacio**
**Marieta Del Rivero**
**Ivan Martén**
**Josep Maria Martorell**
**José Maria Mato**
(PATRONO DE LA COMUNIDAD
DEL CONOCIMIENTO)
**Miguel Ángel Morell**
**Manuel Salaverria**

# BAZKIDEAK

## TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOKO BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

ACLARA METERS, S.L.
AIANOX, S.A.
ALSA
AMURRIO FERROCARRIL Y EQUIPOS, S.A.
ARCELORMITTAL INNOVACIÓN, INVESTIGACIÓN E INVERSIÓN, S.L.
ARTECHE CENTRO DE TECNOLOGIA, A.I.E.
BATZ, S.COOP.
BURDINOLA, S.COOP.
CEMENTOS LEMONA, S.A.
CEMENTOS REZOLA – HEIDELBERGCEMENT GROUP
CIE AUTOMOTIVE, S.A.
CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. (CAF)
EPTISA CINSA INGENIERÍA Y CALIDAD, S.A.
ESTUDIOS GIS, S.L.
EUROHELP
EUSKAL FORGING, S.A.
EUSKALTEL, S.A.
FAGOR EDERLAN, S.COOP.
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE FUNDIDORES
FUNDACIÓN TECNALIA COLOMBIA
FUNDICIÓN EN CÁSCARA, S.A.
GESTAMP
GRUPO AERNNOVA
GRUPO GORLAN
GRUPO IGUALMEQUISA, S.A.
GRUPO TAMOIN, S.A.
HÉROUX-DEVTEK SPAIN
IBARMIA INNOVATEK, S.L.U.
IBERDROLA, S.A.
IBERMÁTICA, S.A.
INGETEAM, S.A.
INKOLAN
IRIZAR
KUTXABANK, S.A.
LAN MOBEL, S.COOP.
M. TORRES DISEÑOS INDUSTRIALES, S.A.U.
MADERAS MEJORADAS INDUSTRIAL, S.A.U.
ODEI, S.A.
PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A. (PETRONOR)
REGAL BELOIT SPAIN, S.A.
SAPA PLACENCIA, S.L.
SIDENOR ACEROS ESPECIALES, S.L.
SIEMENS ENGINES R&D, S.A.
SIEMENS GAMESA RENEWABLE ENERGY INNOVATION AND TECHNOLOGY, S.L.
TALGO
TECMAN, SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO, S.L.
TRADEBE, S.A.
TUBACEX, S.A.
ULMA HORMIGÓN POLÍMERO, S.COOP.
VELATIA, S.L.
VICINAY CADENAS, S.A.
VIUDA DE SAINZ, S.A.
ZIV APLICACIONES Y TECNOLOGÍA, S.L.
BILBOKO UDALETXEA
DONOSTIAKO UDALETXEA
GASTEIZKO UDALETXEA
UNIVERSIDAD DE DEUSTO
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO – EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

# BESTE GOBERNU-ORGANOAK

## BATZORDE EXEKUTIBOA

LEHENDAKARIA
**Alex Belaustegui**
INGETEAM, S.A.

LEHENDAKARIORDEA
**Juan Ignacio Sanz**
IBERMÁTICA, S.A.

IDAZKARIA
**Fernando Irigoyen**
KUTXABANK, S.A.

BATZORDEKIDEAK
**Francisco Javier Fernández de Retana**
AERNNOVA AEROSPACE, S.A.U.

**José Esmorís**
CIE AUTOMOTIVE, S.A.

**María José Armendáriz**
GESTAMP AUTOMOCIÓN, S.A.

**Izaskun Rica**
IBERDROLA, S.A.

**Garikoitz Telleria**
IRIZAR, S.COOP.

**Joaquim Coello**
PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A. (PETRONOR)

**Alejandro Ormazabal**
VELATIA, S.L.

**D. Alberto Fernández**
EUSKO JAAURLARITZA

**Manuel Salaverria**

## IZENDAPENEN ETA BAZKIDEEN BATZORDEA

LEHENDAKARIA
Francisco Javier Fernández de Retana
AERNNOVA AEROSPACE, S.A.U.

IDAZKARIA (EZ PATRONOA)
Elena Schaeidt
TECNALIA

BATZORDEKIDEAK
José Manuel Esmorís
CIE AUTOMOTIVE, S.A.

Alberto Fernández
EUSKO JAURLARITZA

## IKUSKARITZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA
Fernando Irigoyen
KUTXABANK, S.A.

IDAZKARIA (EZ PATRONOA)
José Maria Múgica
TECNALIA

BATZORDEKIDEAK
Juan Mª Palencia
FAGOR EDERLAN, S. Coop.

Xabier Iturbe
EUSKALTEL, S.A.

## ESTRATEGIA BATZORDEA

LEHENDAKARIA
José Esmorís
CIE AUTOMOTIVE, S.A.

BATZORDEKIDEAK
María José Armendáriz Tellitu
GESTAMP AUTOMOCIÓN S.A.

Alberto Fernández
EUSKO JAURLARITZA

Joaquim Coello
PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A.
(PETRONOR)

Alejandro Ormazabal Echevarria
VELATIA, S.L.

Ivan Martén

Manuel Salaverria

## DIBISIO KONTSEILUAK (LEHENDAKARIAK)

BUILDING TECHNOLOGIES
Ángel María Jiménez
SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, S.A.-FYM- CEMENTOS REZOLA

ICT
José Ignacio del Río
IBERMÁTICA, S.A.

INDUSTRIA ETA GARRAIOA
Imanol Iturrioz
CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. (CAF)

ENERGIA ETA INGURUMENA
Izaskun Rica
IBERDROLA, S.A.

LAB_SERVICES
Jesús Navas
VICINAY, S.A.

OSASUNA
Nicolás Guerra
GRUPO IGUALMEQUISA, S.A.

## GAINBEGIRATZE-KONTSEILUA

LEHENDAKARIA
Ander Ramos Murguialday

IDAZKARIA
Yolanda de Miguel

Aitor Álvarez-Gila
Jon Azpiazu Lozano
Joannes Berque
Marta Brizuela Parra
Alberto Diez Olivan
Urko Esnaola Campos
Sergio Gil López
Iván Gutiérrez Agüero
Jesús López Lobo
Patricia Molina Costa
Andrea Sarasola Sanz
Ana Isabel Torre Bastida
Alex Belaustegi Foronda
INGETEAM

# INFORMAZIO EKONOMIKOA

## 2020KO DIRU-SARRERAK, FINANTZAKETA-ITURRIEN ARABERA

%49 Pribatua eta bestelakoak

%21 Europa

%29 Eusko Jaurlaritza

%1 Beste Administrazioak



2020ko abenduaren 31ko datuak

## 2020KO DIRU-SARRERAK

| Kontzeptua | K€ |
|---|---|
| Finantzaketa publiko ez-lehiakorra | 25.163 |
| Finantzaketa publiko lehiakorra | 33.506 |
| Kontratupeko finantzaketa | 52.603 |
| Beste batzuk | 2.336 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **113.608** |

## EGOERAREN BALANTZEA

| Aktiboa | K€ |
|---|---|
| Aktibo ez-korrontea | 93.996 |
| Aktibo korrontea | 153.668 |
| **Aktiboa, guztira** | **247.664** |

| Ondare garbia eta pasiboa | K€ |
|---|---|
| Ondare garbia | 98.547 |
| Pasibo ez-korrontea | 99.353 |
| Pasibo korrontea | 49.764 |
| **Ondare garbia eta pasiboa, guztira** | **247.664** |

K€ = Mila euro

Hemen azaltzen diren datuak Urteko Memoria Ekonomikoan azaltzen dira (KPMG-k ikuskatua).

## AUDITOREAREN GUTUNA

KPMG Auditores, S.L.
Avda. de la Libertad, 17
2ª planta
20004 San Sebastián

### Informe de Auditoría de Cuentas Anuales emitido por un Auditor Independiente

Al Patronato de Fundación Tecnalia Research & Innovation por encargo de su Comisión Ejecutiva

#### Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de Fundación Tecnalia Research & Innovation (la Fundación), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2020, la cuenta de resultados y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Fundación a 31 de diciembre de 2020 así como de sus excedentes correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2.a de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

#### Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes de la Fundación de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

*La firma electrónica del documento integrado por las cuentas anuales de Fundación Tecnalia Research & Innovation (la Fundación) correspondientes al ejercicio terminado en 31 de diciembre de 2020 formulada por la Comisión Ejecutiva el 25 de marzo de 2021 junto con nuestro informe de auditoría sobre las mencionadas cuentas anuales, se emite a solicitud del Registro de Fundaciones del País Vasco únicamente como justificación y autenticación de la integridad y contenido del mismo, así como de la identidad del firmante. En este sentido, la fecha del informe de auditoría, entendida a todos los efectos, y en especial a los de la de aplicación de la normativa de auditoría de cuentas vigente en España, es la que figura bajo la firma manuscrita del auditor de cuentas responsable que ha realizado el trabajo. En ningún caso puede entenderse que la mencionada firma electrónica sustituye a la citada firma ni constituye o forma parte integrante de la formulación de las cuentas anuales, que es responsabilidad única del Comité Ejecutivo.*

6

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a la comisión de auditoría de Fundación Tecnalia Research & Innovation, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

KPMG Auditores, S.L.
Inscrito en el R.O.A.C nº S0702

Olga Marinas
Inscrito en el R.O.A.C nº 23131

14 de abril de 2021

AUDITORES

KPMG AUDITORES, S.L.

Olga Marinas Suárez
26/04/2021

*La firma electrónica del documento integrado por las cuentas anuales de Fundación Tecnalia Research & Innovation (la Fundación) correspondientes al ejercicio terminado en 31 de diciembre de 2020 formulada por la Comisión Ejecutiva el 25 de marzo de 2021 junto con nuestro informe de auditoría sobre las mencionadas cuentas anuales, se emite a solicitud del Registro de Fundaciones del País Vasco únicamente como justificación y autenticación de la integridad y contenido del mismo, así como de la identidad del firmante. En este sentido, la fecha del informe de auditoría, entendida a todos los efectos, y en especial a los de la de aplicación de la normativa de auditoría de cuentas vigente en España, es la que figura bajo la firma manuscrita del auditor de cuentas responsable que ha realizado el trabajo. En ningún caso puede entenderse que la mencionada firma electrónica sustituye a la citada firma ni constituye o forma parte integrante de la formulación de las cuentas anuales, que es responsabilidad única del Comité Ejecutivo.*

# JARDUERAREN **INPAKTUA**

## INPAKTUARI BURUZKO DATUAK

*2020an, ziklo estrategiko bat amaitzeari ekin genion TECNALIAn, gure xedearekin bat datorren I+G+Bko jardueraren inpaktua maximizatzeko: "Teknologia BPGd bihurtzea."*

Ziklo horretan, metodologia eta tresna propio baten bidez, gure jarduerak zenbait dimentsiotan duen **inpaktu positiboaren hazkundea** egiaztatu ahal izan dugu, hala nola inpaktu ekonomikoa, zientifiko-teknologikoa, soziala edo ingurumenekoa.

Horri esker, batetik, baloratu ahal izan dugu zer neurritan bete diren ziklo estrategiko honetan gure xedea eta ikuspegia, eta lagungarri izan zaigu etapa honetan helburu estrategikoak finkatzeko eta lortzeko. **Bestetik, gure uste bat egiaztatu ahal izan dugu datuekin, hau da, lotura argia dutela lehiakortasunak, hazkundeak, enpleguak eta gizarte-ongizateak I+G+Baren alde sistematikoki eta gero eta gehiago apustu egitearekin.**

2020an, COVIDek eragindako krisia zaila izan den arren, **inpaktu-adierazle guztiak hobetzea lortu dugu**, eta ziklo estrategikoan inpaktua areagotzen jarraitu dugu.

Hauek dira 2020ko jarduera-inpaktuaren neurketan lortutako **emaitza batzuk**, baita 2017ko neurketarekiko bilakaerarenak ere:

Enpresa batek TECNALIArekin I+Gan inbertitutako **euro bakoitzeko, 10,3 euro sartu dira** haren emaitza-kontuan. 2017an, berriz, 6 € sartzen ziren.

ENPRESAK I+Gan INBERTITU > 1€ → TECNALIA → 10,3€ EMAITZA KONTUAN

TECNALIAko **lanpostu bakoitzeko**, beste **5 lanposturi eusten zaie** Euskadin, 2017an baino % 40 gehiago.

LANPOSTU KOPURUA TECNALIAN > 1 → TECNALIA → 1+5 LANPOSTU KOPURUA EAE-N

Euskadiko erakunde publikoek TECNALIAn inbertitzen duten **euro bakoitzeko, BPGd-ko 16,2 euro** sortzen dira; 2017an, berriz, 14 €.

EUSKADIKO ERAKUNDE PUBLIKOEK > 1€ → TECNALIA → 16,2€ BPG

Euskadiko erakunde publikoek TECNALIAn inbertitzen duten **euro bakoitzeko, 1,9 euroko itzulkin fiskala** lortzen da, 2017an baino % 10 gehiago.

EUSKADIKO ERAKUNDE PUBLIKOEK > 1€ → TECNALIA → 1,9€ ITZULKIN FISKALA



TECNALIA 2012az geroztik, TECNALIak bere **karbono-aztarna (KA) kalkulatzen du**, UNE-ISO 14064-1:2012 arauaren printzipioen arabera, bere jarduerak zuzenean eta zeharka eragiten dituen **jarduerek ingurumenean duten inpaktua ezagutzeko** eta, horrekin, jarduera horiek murrizteko hobekuntza-ekintzak abian jartzeko, zeinak **energia-eraginkortasunean eta mugikortasun iraunkorrean** oinarritu baitira. 2019an, zeharkako jarduera gehiago hartu dira kontuan, tresna propio batekin Antolaketaren Ingurumen Aztarna (AIA) kalkulatzeko eta, era berean, karbono-aztarna (KA) eguneratzeko. 2020an, kanpo-erakunde batek egiaztatu ditu 2019ko ekitaldiari dagokionez TECNALIAk kalkulatutako AIA eta KA.

Azken bi ekitaldietako datuek adierazten dutenez (berotegi efektuko gasak, guztira, 6501 t eta 3315 t CO2 baliokide, hurrenez hurren), **pandemiaren ondorioz energia-kontsumoak eta bidaiak murriztu izanak eragin du inpaktua txikitzea**. Beraz, jarduera-ildo gisa mantentzen dira 2024ko aldi estrategikoan eraikinen eraginkortasun energetikoa eta mugikortasun iraunkorra.

## ACUSTRAIN

*Enpresa berria, Bizkaian kokatua, 2020an sortu zen, TECNALIAren BECSA enpresaren arteko lankidetzatik, hormigoian eta material xurgatzaileetan oinarritutako garaiera txikiko sistema modularrak fabrikatzeko eta instalatzeko, hiri-inguruneetan dabiltzan trenen zarataren pantaila akustiko gisa.*



Gainera, TECNALIAn ekintzailetza-ekosistema bat garatzen dugu, zeinak laguntzen baitigu gure aktibo teknologikoak aprobetxatzen eta merkaturatzen **TECNALIA Ventures** gure *Deep Tech Venture Builder*raren bidez, enpresentzat eta gizartearentzat balioa sortzeko. Horretarako, berrikuntza-ekosistema ororen funtsezko hiru oinarriak elkarri lotzen jartzen ditu bere ahaleginak: Minds (teknologoak / zientzialariak), Management (ekintzaileak) eta Money (inbertitzaileak).

Hala, 2020an, TECNALIAk 4,4 milioi euroko sarrerak lortu ditu jabetza industrialaren salmentagatik.

## OTEB-EN DATUAK

- **1** Urte osoan sortutako OTEBak
- **20** Sustatutako OTEB aktiboak
- **13** TECNALIAren parte-hartzea duten OTEBak
- **213** Langileak OTEB aktiboetan
- **28,4** OTEB aktiboen fakturazioa (M€)
- **9,9** TECNALIAren parte-hartzea duten OTEBek erakarritako kapitala (M€)

## PATENTEEN DATUAK

Horrez gain, Europako Patente Bulegoaren 2020ko txostenaren arabera, TECNALIA da Europako patente gehien eskatu duen Espainiako hirugarren erakunde pribatua. TECNALIAk 2,5 patente eskatu ditu 100 ikertzaileko; antzeko ezaugarriak dituzten beste erakundeek baino gehiago.

- **23+15** Patente-eskaerak eta software-erregistroak
- **188** Patente-familiak zorroan
- **777** Patenteak zorroan
- **118** Software-erregistroak zorroan
- **13** Onartutako patenteak



# ERREFERENTZIA EUROPAN

## 1a Espainian

Espainiako lehenengo erakunde pribatua gara, EBko Horizon 2020 Programako kontratazioen, parte-hartzeen eta gidatutako projektuen kopuruari dagokienez.

## 13a Europan

Europako 2.900 erakuderen artetik 13. postuan gaude.

*ITURRIA: CORDIS. 2020ko abenduaren datuak*

## HORIZON 2020 PROIEKTUAN GURE PARTE HARTZEA

**524**
Estatuko enpresa kolaboratzaile

**451**
Proiektu kontratatu*

**178**
Milioi €-ko kontratazioa*

**68**
Proiektutan buru

** EIT proiektuak barne*

*2020ko abenduaren 31ko datuak*




EB gero eta gehiago ari da ateratzen kudeaketa I+G+Ban eragiteko autonomia handia duten erakunde publiko-pribatuetara.

TECNALIAren arrakastaren gakoetako bat izan da Europako 60 ekimen publiko-pribatu eta elkarte garrantzitsuetan baino gehiagotan duen posizionamendua.

1. **18 ETP**
   EUROPEAN TECHNOLOGY PLATFORMS
   Manufuture, EuMAT, SmartGrids

2. **12 PPP**
   PUBLIC PRIVATE PARTNERSHIPS
   Factories of the Future (FoF), Green Vehicles (GV), Energy Efficient Buildings (EeB), SPIRE

3. **4 JTI**
   JOINT TECHNOLOGY INITIATIVES
   Clean Sky, Shift2Rail, Hydrogen & Fuel Cell, ECSEL

4. **2 EIP**
   EUROPEAN INNOVATION PARTNER
   RawMaterials & A.H. Ageing

5. **6 EIT**
   INNOENERGY, KNOWLEDGE INNOVATION COMMUNITIES
   Manufacturing, Health, Urban Mobility & Climate-KIC, Raw Materials.

6. **1 JPI**
   JOINT PROGRAMMING INITIATIVE
   Cultural Heritage

7. **15 elkarte garrantzitsu baino gehiago**
   EARTO, EERA, EFFRA...

## PRESENTZIA GARRANTZITSUA DUGU EIT INNOVATION COMMUNITIES-ETAN



MANUFACTURING

- Core Member
- Chair of Advisory Board CLC West
- TV – Linked 3rd Party (LTP)

HEALTH

- Associated Member
- Member of the Innovation Hub Spain Board
- TV – Linked 3rd Party (LTP)

INNOENERGY

- Associated Partner
- Board of Director

URBAN MOBILITY

- Core Member
- Member of Steering Committee CLC South

CLIMATE-KIC

- Community Member

RAWMATERIALS

- Core Partner
- Steering Committee Innovation Hub South
- TV – Linked 3rd Party (LTP)

# ESPEZIALIZAZIO **TEKNOLOGIKOA**

*TECNALIAren Teknologia guztiek ezaugarri hauek dituzte: garrantzi teknologikoa, gaitasun zientifiko-teknologikoak eta merkatu-eskaera, eta merkatuan eragina izateko behar den ikerketa-masa kritikoa.*

TECNALIAk Teknologia Planean identifikatutako teknologien inguruan antolatzen du bere Estrategia Teknologikoa. Horien eragina ahalik eta handiena izan dadin, TECNALIAK bitan sailkatzen ditu; zeharkako teknologiak (merkatu batean baino gehiagotan eragina izan dezaketenak) eta teknologia bertikalak (merkatu bakar batean eragina dutenak).

Argitalpen zientifiko indexatuak:
**328**

Argitalpen zientifiko lehen % 25etan:
**146**

Doktore-tesi irakurriak:
**17**

Doktoreak:
**257**

H5 indizean:
**36**

Argitalpen zientifiko indexatu elkarlanean eginak:
**111**

Doktore-tesi lankidetzan zuzenduak:
**165**

## ZEHARKAKO TEKNOLOGIAK

- Automatizazioa, robotika eta kontrol mekatronikoa
- Zibersegurtasuna eta kate-blokea
- Ikusmen artifiziala eta interakzio bisuala
- Gainazalen ingeniaritza
- Adimen artifiziala eta big data
- Metalak: Material, prozesu eta produktu metaliko jasangarriak
- Nanomaterialak
- Polimeroak, konpositeak eta oinarri biologikoko materialak
- Sistema elektroniko xurgatuak, potentzia-elektronika eta kontrola
- Software teknologiak



## TEKNOLOGIA ESPEZIALIZATUAK

- Klima-aldaketara egokitzea
- Biologia molekularra
- Biosintesia eta hartzidura
- Egitura-kalkulua eta fluidoen eta egituraren arteko interakzioa
- Airearen kalitatea eta akustika
- Bizi-zikloa eta ekodiseinua
- Zerbitzuko portaera
- Fidagarritasuna
- Offshore sistemen dinamika
- Hiri-diseinua
- Diseinua eta simulazioa
- Ebaluazio biologikoa
- Erauztea eta kapsularatzea
- Eraikinaren fisika
- Galenika
- Suaren ingeniaritza
- Zementu-materialak
- Meteorologia eta klima
- Eredu energetikoak
- Eredu semantikoak
- Neural interfaces
- Power systems
- Fabrikazio-prozesuak
- Kimika jasangarria
- Mintzen teknologia eta prozesuak areagotzea
- Hondakinak balorizatzeko teknologiak
- Teknologia fotovoltaikoak
- Termodinamika

# JARDUERA-EREMUAK

*Gure jarduera-eremuak garapen iraunkorraren helburuekin (GJH) bat datoz.*




Gure enpresei entzuten diegu eta gizartearen erronkak irakurtzen ditugu, benetako ikuspegi teknologikoz. Hortik abiatuta, gure muina osatzen duen balio-proposamena eraikitzen dugu, gure lehentasunezko jarduera-eremu bakoitzean aukera garrantzitsuenak eta gure indarguneak hobekien interpretatzen dituztenak proiektatuz.

**Energia sakonki deskarbonizatzen laguntzen dugu** soluzio teknologikoak garatuz energia berriztagarriak lehiakorrago bihurtzeko, energia-sistemaren elektrifikazio adimenduna bultzatzeko eta hidrogenoak balio handiko bektore gisa duen potentziala zabaltzeko, eta, hala, 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko.

# TRANTSIZIO **ENERGETIKOA**

- Energia berriztagarriak
- Sare adimendunak eta metaketa
- Energia positiboko eraikinak eta barrutiak
- Industriaren deskarbonizazioa
- Mugikortasun deskarbonizatua
- Energiaren digitalizazioa
- Trantsizio energetikorako materialak
- Klimaren eta energiaren arloko estrategia eta ingurumen-jasangarritasuna

# MUGIKORTASUN **JASANGARRIA**

- Aireko hiri-mugikortasuna
- Mugikortasunaren kudeaketa adimenduna
- Mugikortasun jasangarrirako energia
- Garraiorako azpiegiturak
- Gidatze automatizatua
- Ibilgailu hibridoak eta elektrikoak

**Teknologia eta negozio-eredu berriak diseinatzen eta garatzen lan egiten dugu,** etorkizunean **ingurumen-inpaktu txikiko mugikortasun-egoera konektatu, efiziente, seguru eta inklusibo** baterantz igarotzen laguntzeko. Lan horretan sartzen da garraio-ibilgailuak, komunikazio-sistemak eta energia-azpiegiturak hobetzea eta interakzioan jartzea, eta hirietako eta hiriarteko ekosistemetan integratzea.

Egoera orokorra aldakorra da, eta sektore guztietako manufaktura-enpresekin bat dator bilatzen dugun helburua: produktibitatean eragin positiboa izatea eta negozioen lehiakortasuna handitzea. Horretarako, **manufaktura adimentsua, malgua eta jasangarria bilatzen dugu, digitalizazioaz, automatizazioaz eta ekoefizientziaz baliatuz** materialak eta fabrikazio-prozesuak eraldatzen dituen aldaketaren eragile gisa.

## FABRIKAZIO AURRERATUA

- 4.0 industria
- Makinak, automatizazioa eta robotika aurreratuak
- Industria karbonogabetzea eta ekonomia zirkularra
- Material eta fabrikazio-prozesu berriak
- Fabrikazio gehigarria

## OSASUNA

- Elikagai eta konposatu funtzionalak
- Elikagai osasungarriak
- In vitro diagnostikoak
- Medikuntza birsortzailea
- Neuroingeniaritza
- Produktu biomedikoak
- Robotika medikoa
- Osasun digitala eta irudigintza medikoa
- Garapen farmazeutikoa
- Lan-arriskuen prebentzioko wearableak
- Hiri-soluzio osasungarriak

**Prebentzio-, diagnostiko-, pronostiko-, tratamendu- eta errehabilitazio-etapetan produktu eta zerbitzu pertsonalizatuak garatzea bultzatzen dugu**, ikuspegi integral baten bidez, non kontuan hartzen baitira genetika, nutrizioa eta ingurune fisiko eta soziala, horiek baitira pertsonen osasunari eragiten dioten aldagai nagusiak.

**Hiria eta lurraldea positiboki eraldatzen eta garatzen laguntzen dugu**, pertsonei zuzendutako berrikuntza teknologikoko soluzio-multzo baten bidez, hiri-ingurune adimendunak eta karbono gutxikoak garatzeko.

## **HIRI**-EKOSISTEMA

- Ekomaterial adimendunak
- Eraikin adimendunak
- Energia eraikingintzan eta hirian
- Erresilientzia eta klima-aldaketa
- Hiri- eta lurralde-eraldaketa
- Hiri osasungarria
- Hiri-mugikortasuna
- Azpiegitura adimendunak
- Ekonomia zirkularra

## ERALDAKETA **DIGITALA**

- Adimen artifiziala
- Robotika eta sistema kognitiboak
- Interakzio-sistema aurreratuak eta 4.0 langilea
- Errendimendu handiko konputazioa datu masiboetarako
- Sistemen bizi-zikloa eta DevOps
- Zibersegurtasuna eta konfiantza
- Gauzen Internet
- Sentsorika eta jarduna
- Ikusmen artifiziala
- Mantentze-lan adimenduna

**Izugarri gustatzen zaigu pentsatzea nolakoak izango diren prozesu, produktu eta zerbitzu digitalak mundu gero eta interkonektatuagoeta interaktiboago batean, eta halakoak diseinatzea.** Horretarako, hiru ardatzetan oinarritzen dugu gure estrategia digitala (adimena, segurtasuna eta balioa sortzeko eredu berriak), eta proposamen bereizgarri bat garatzen ari gara “datuaren ekonomian”, zibersegurtasuna, bloke-kateak eta adimen artifiziala oinarri dituzten produktuen fabrikatzaile eta integratzaileentzat.

# 2020KO GERTAERA ESANGURATSU BATZUK




IBERCAJA FUNDAZIOAK SUSTATUTAKO MOBILITY CITY EKIMENEAN PARTE HARTU DUGU, CTAGEKIN BATERA




4.0 IBILGAILU ELEKTRIKOAK GARATZEN ARI GARA, BILBOKO UDALAREKIN BATERA, KERIK GABEKO HIRIAK SUSTATZEKO



EUROPAN SARI BAT JASO DUGU, PARALISIA DUTEN PAZIENTEEN GARUNA, MUSKULUAK ETA MUGIMENDUAK BIRLOTZEN DITUEN SISTEMA BERRITZAILE BAT GARATZEAGATIK




IMHREKIN ELKARTU GARA FABRIKAZIO ADITIBOKO TEKNOLOGIA BERRIAK GARATZEKO




TECNALIAREN WEBGUNE BERRIA JARRI DUGU MARTXAN




GIDARIRIK GABEKO LEHEN IBILGAILUA DU MALAGAKO HIRIAK; GURUTZAONTZIEN TERMINALA ETA HIRIGUNEA LOTZEN DITU




INGREDALIAK INDUSTRIALIZAZIO-PROZESUA AMAITU DU, ETA 2. POSTUA LORTU DU EXPANSIÓN START-UP 2020 SARIETAN



PRIBATUTASUNA BERMATUZ KONTAKTUEN AZTARNARI JARRAITZEN DION LEHEN SISTEMA JARRI DUGU MARTXAN, IBERMATICAREKIN BATERA

## 2020KO GERTAERA ESANGURATSU BATZUK



ITER FUSIO-ERREAKTORE ESPERIMENTALA MARTXAN JARTZEN PARTE HARTU DUGU, AVSREKIN BATERA



AFILIAZIO BIKOITZA DUTEN IKERTZAILEEN PROGRAMA BAT JARRI DUGU MARTXAN, EHUREKIN BATERA



BIZKARREKO KIRURGIA HUTSEGINAREN SINDROMERAKO EBALUAZIO SENTSORIAL KUANTITATIBO ELEKTRIKOKO SISTEMA PROBATU DUGU



MYTECNALIA: KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ONLINEKO PLATAFORMA BAT AURKEZTU DUGU, BEZEROEK BEREN AZPIEGITURAK ETA I+GKO SAIAKUNTZAK ESKURA IZAN DITZATEN



KABLE-ROBOTIKA ERABILIZ, OBRETAKO ARRISKUAN MURRIZTEN DITUGU




2023AN, BIZKAIKO LEHEN AUTOBIDE ADIMENDUNA JARRIKO DUGU MARTXAN, FORU ALDUNDIAREKIN BATERA



HITZARMEN ESTRATEGIKO BAT SINATU DUGU HIDROGENOAREN ZENTRO NAZIONALAREKIN ($CNH_2$)



PORTUKO GARABIAK DIGITALIZATZEKO PROIEKTU BATI HELDU DIOGU, ZEUKOREKIN BATERA



HYDROGEN EUROPE RESEARCH OSPETSUAN, EKAIN FERNÁNDEZ AUKERATU DUTE HIDROGENOAREN BANAKETA BATZORDEAREN KOORDINATZAILE



LARRIALDIETAKO LANGILEEN OSASUNA MONITORIZATZEKO, UKIPEN-BIOFEEDBACK BIDEZKO SISTEMA BAT GARATUKO DUGU



FESIAK 300 K€ BAINO GEHIAGO FAKTURATU DITU, 12 HERRIALDETARA ZABALDUTAKO MERKATURATZE-SARE BATEKIN ETA 7 PERTSONAKO LANTALDE BATEKIN



GOI-TENTSIOKO KABLEEN SAIAKUNTZEN LABORATEGI BAT INAUGURATU DUGU



“DIGITAL TOURIST 2020” SARIA JASO DUGU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN EGINDAKO TURISMO ADIMENDUNEKO PROIEKTUAGATIK



KLIMA-ALDAKETAK DONOSTIAN ZER ONDORIO IZANGO DITUEN AZTERTZEKO PROIEKTU BAT EGIN DUGU



HIDROGENOAREN ARLOAN MUNDUAN ETORKIZUN HANDIENA DUTEN ENPRESEN ZERRENDAN (CB INSIGHTS) AGERTU DA $H_2$SITE




BERRIKUNTZAREN ETA NORMALIZAZIOAREN INTEGRAZIOAREN AURTENGO UNE SARIA JASO DUGU

# PRESENTZIA **GLOBALA**



# EGOITZEN KOKAPENA

## EGOITZA NAGUSIA

**GIPUZKOAKO PARKE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA**
Mikeletegi Pasealekua, 2
E-20009 Donostia (Gipuzkoa)
**T 902 760 000***
Nazioarteko deiak:
**+34 946 430 850**

## BESTE EGOITZA BATZUK

### ARABA

**ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOA**
Albert Einstein, 28
Leonardo Da Vinci, 11
E-01510 GASTEIZ

### BIZKAIA

**BIZKAIKO PARKE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA**
Astondo Bidea, Edificio 700
E-48160 Derio
Ibaizabal Bidea, Edificio 101
Laida Bidea, Edificio 204
Laida Bidea, Edificio 413
E-48170 Zamudio

### CÁDIZ

**CENTRO TECNOLÓGICO**
Loma de Sancti Petri, s/n.
E-11139 Chiclana de la Frontera

### GIPUZKOA

**GIPUZKOAKO PARKE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA**
Mikeletegi Pasealekua, 7
E-20009 Donostia

**POLÍGONO VENTAS**
C/ Gabiria 82-84
E-20305 Irun

Área Anardi, 5
E-20730 Azpeitia

### MADRIL

Paseo de la Castellana, 200
Despacho 302 – Edificio SPACES
E-28046 Madrid

### ZARAGOZA

Parque Empresarial Dinamiza
Complejo Inmobiliario Zentro_Expo
Avda. de Ranillas nº1 Oficinas C y D
E-50018 Zaragoza

## ORDEZKARITZAK ATZERRIAN

### TXINA

EITRI - Building 8
88, Chengxin Dadao
Jiangning District, 211100
Nanjing
T +86 25 52150605

### KOLONBIA

Carrera 18 No. 78-40
Edificio Témpora, Oficina 203
C.P. 110221 - Bogotá
T +57 1 236 7968

### EKUADOR

De los Granados N44-21
y De las Azucenas.
C.P. 170503 - Quito

### FRANTZIA

CSU - BÂTIMENT 6
950, Rue Saint-Priest
F-34090 Montpellier
T +33 467 107 130

28, avenue Gustave Eiffel
Coeur Bersol, Bât B
F-33600 Pessac
T +33 467 107 130

### ITALIA

CERFITT
Viale Rinaldo Piaggio, 32
I-56025 Pontedera (PI)
T +39 0587 274 818

### MEXIKO

Torre Reforma Latino, Piso #40
Of. 40A115
Avenida Paseo de la Reforma #296
Colonia Juárez, Delegación Cuauhtémoc
C.P. 06600 - Ciudad de México
T+52 1 55 4494 5063

### SERBIA

Deligradska 9/39
RS-11000 Belgrado
T +381 11 3246 419